

DOSIERRA

Gizarte eta Komunitate Animazioa



EGILEA: IRATI PADILLA VALENZUELA

IRAKASLEA: KONTXESI BERRIO-OTXOA

AURKIBIDEA

Sarrera	2
ASK-ren testuinguratze teorikoa	3
ASK-ren metodologia	7
ASK profesionalen profila.....	8
ASK-rako jardunbideak	10
ASK-ren gaur egungo egoera	12
Esperientzia errealak	14
Gure bizipenak	19
Ondorioak	22
Bibliografia.....	24

Sarrera

Idazlan hau osatzen duten orrialdeek animazio soziokomunitarioko dosierra eratzten dute, Gizarte Langintza Graduoko laugarren kurtsoan burutzen den Gizarte eta Komunitate Animazioa ikasgaiaren aurkezten dena, hain zuzen ere. Bertan, zortzi atal ezberdin bereizten dira, hala nola, testuinguratzeko teorikoa, metodologia, profesionalaren profila, jardunbideak, gaur egungo egoera, esperientzia errealak, gure bizipenak eta ondorioak. Horretarako, iturri zientifiko ezberdinak erabili dira, autore ezberdinen ikuspuntuak uztartzearekin batera.

Andrés Escarbajalen aburuz (1992), lurraldea eta komunitatea diskurtso hezigarriaren erdigunea kontsideratzen den heinean eta jokaera sozio-politikoak gizarteari zuzentzen zaion bitartean, animazio soziokomunitarioko interbentzioak komunitatean bertan eratzeari beharra ageri da ezberdintasun sozialak murrizteko bideratuta dagoen politikaren tresna lez. Hori horrela izanik, ASK gizarte konkretu batean esku-hartzeko erraminta indartsu bat bezala ikusten da eta horregatik ezinbestekoa da etorkizuneko gizarte langileak izango garen neurrian komunitatean lantzeko prozedura hau ezagutzea.

Hortaz, lan honen helburua kontzeptu honen azalpena ulertzea eta barneratzea da, balioak bereganatzearekin batera eta esperientzia ezberdinak ezagutzea, izan ere, tresna indartsu honen inguruko gogoeta ahalbidetzea bilatzen da. Hots, animazio soziokomunitarioaren azterketaren bidez gerturatzeko bat lortzea da lan honen asmoa.

1. ASK-ren testuinguratze teorikoa

1. 1. Definizioa

Lan honi hasiera emateko, animazio sozio komunitarioaren nondik norakoak azalduko dira, baina kontzeptuaren definizioa eman baino lehen esku-hartze eredu honen jatorria ikusiko dugu Maria Cruz Chacón-en (2010) azterlanaren bidez. Izan ere, ASK azkenengo hamarkadetan gorakada handia izan du eta geroz eta ezagunagoa bihurtzen ari da jendartean. Jatorri konkretua zehaztu gabe egon arren, autore gehienek XX. mendearen hasieran kokatzen dute garapen industrialak sortutako behar sozialen ondorioz. Azken batean, aldaketa sozialen aurrean erantzuteko beharrak biztanleria berezko identitate soziala eta kulturala ulertzen saiatzea eragin zuen.

Hala ere, 1950. urtera arte ez da Animazio Soziokomunitario kontzeptua erabiltzen Mondesee-n ospatutako UNESCO-ren konferentzia batean. Egile honen arabera, momentu hartan zabaldu zen adigai hau testuinguru profesional eta instituzional batean.

Aldaketa sozial ezberdinak, krisi ekonomikoak, aisialdiaren gorakada, baloreen aldaketa, pasibotasuna, indibidualismoa, alineazioa eta ahulezia soziala Animazioaren beharrean aldaketak eragiten joango dira, "demokrazia kulturala" eta "garapen komunitarioa" bezalako helburuak dituen taldeko garapena eta garapen indibidualaren zentzua dinamizatzeko eraldaketa bat bilatzearen bidez. (Cruz, 2010, 2. or.).

ASK-ren jatorria erreparatu ondoren, ASK-ren lehenengo hurbilpenarekin jarraituko dugu eredu honen baitan ageri ez dena sailkatuz. Horretarako, Froufe eta Sanchezek (1998) Barradoren (1982) hitzak jasoz egindako bereizketa oinarritzat hartuko dugu orainoan. Lehenik eta behin, aipatu beharra dago, ASK ez dela hezkuntza mekanizista eta estatikoa, hots, zapalkuntzan, menpekotasunean eta bazterketan oinarritutako komunikazioa eta hezkuntza saihesten du. Bigarrenik, popularizazioa ez dela adierazten digu autoreak, ez baitu gizarte konkretu bateko produktu kulturalak popularizatzen. Ondoren, denbora-pasa bat ez dela argi izan behar dugu, izan ere, prozesuak erantzukizuna eskatzen du. Horretaz gain, teknika aseptikoen erabilpenaren ideia baztertzeko du egileak helburuen arabera teknika erabiliko direla defendatuz. Bostgarrenik, ASK ez da ekintza eskuzabal bat, baliabide tekniko, ekonomiko eta giza baliabideen beharra duelako. Gainera, loturarik gabeko ekintzen egutegi bat ez dela kontuan hartu behar da, hau da, ekintza guztien edukia eta helburua bateratua izan behar da. Politika instituzional baten menpekota ez dela aurkezten du Barradok jarraian eta instituzio askok asoziazio eraginkor batzuen inizatibak ezeztatzen kontra agertzen da. Halaber, ASK ezin da izan beste eredu baten kopia, izan ere, esku-hartzen den errealitatera egokitua egon behar da. Azkenik, merkantilizazioa ez dela ageri da, irabazteko asmoa edota interes komertzialak intzidentzia sozialaren gainetik jartzen direla adieraziz.

ASK kontzeptua definitzea zaila den heinean, zer ez den ikusita ideia xume bat eraiki dugu, eta oraingoan, definizio zehatzak luzatzea komenigarria iruditzen zaigu. Horretarako, Froufe eta Sanchez autoreek jasotako definizioak aztertuko ditugu hurrengo lerroetan.

Lehenik eta behin, autore hauen teorian (1998, 33. or.) UNESCO-ren azalpena ageri da, zeinaren arabera, garapen prozesuan eta bizitza soziopoltikoaren dinamikan dagoen komunitatearen inizatiba eta parte hartzea sustatzea helburu dituzten praktika sozialak dira.

Definizio honetaz aparte, Froufe eta Sanchez-ek (1998, 34. or.) beste zehazpen batzuk hartu dituzte jarraibide lez, Ander-Egg soziologoak sortutakoak, esate baterako. Alde batetik, 1986. urtean, talde edo komunitate konkretu batean bizitzaren kalitatea hobetzen dituzten ekintza eta ekimen boluntarioak gauzatzeko parte hartze aktiboan oinarritutako teknika sozialen multzoa bezala definitu zuen. Baina urte batzuk geroago, 1989an alegia, bizitzaren kalitatearen eremu desberdinetan esku-hartzea helburutzat duen parte hartzearen pedagogian oinarritutako teknologia soziala, garapen soziokultural propioa lortzeko jendearen parte hartzea bultzatzen eta sustatzen duena legez ikusten zuen.

Definizioekin jarraituz, Froufe eta Sanchez-ek ematen duten kontzeptuaren berezko azalpena aztertzea beharrezkoa ikusten dugu. Autore hauen aburuz (1998, 36. or.), helburu konkretu batzuen bidez pertsonen garapena bilatzen duen prozesu arrazionala eta sistematikoa, errealitate soziala eraldatzea bilatzen duena pertsonen parte hartze aktiboa dela medio.

Egile hauez gain, badira ASK definitzen saiatu diren beste asko, Pere Soler Masó, besteak beste. Soler-ek (2012) bere azalpenean kontzeptua bitan banatzen du, batetik animazio hitza bereiztuz, eta bestalde, soziokultural terminoa nabarmenduz. Azaltzen duen bezala, animazioa bizitza ematean datza, hau da, lurralde konkretu baten partaideak mobilizatzen ditu egoera hobereana edota desiratuena lortzeko. Bestetik, soziokultural hitzari dagokionez, komunitate eta taldeen baitan ageri den kulturaren espresioa edota adierazpenari egiten dio erreferentzia. Halaber, eguneroko harreman interpersoneletan arreta jartzen du komunitatearen parte hartzea sustatzearen bidez eraldaketa positiboa lortzeko, maila indibidualean zein maila kolektiboan.

Oro har, aurkeztutako definizioek bi elementu goraiatzen dituzte, parte hartzea eta komunitatea, hain zuzen ere. Izan ere, komunitatearen parte hartzearen bidez emandako interbentzioek eta eraldaketek animazio soziokomunitarioa gainontzeko esku hartze prozesuetatik bereizten dute. Hala ere, adigai honen ezaugarriak aztertu arte ez dugu kontzeptua bere osotasunean barneratuko, azken batean, badira ASK-k barnebiltzen dituen hainbat nolakotasun. Hurrengo lerroetan, beraz, hauen analisisa burutuko da prozedura hau aurrera eramateko hauen ezagupena beharrezkoa baita.

1. 2. Ezaugarriak

ASK-ren ezaugarriak zehazterako orduan, sailkapen ezberdinak burutu direla ikusi dezakegu eta oraingoan, Froufe eta Sanchez-en hitzak aztertzen jarraituko dugu. Egile hauek (1998, 41. or.) bost ezaugarri nagusi nabarmentzen dituzte animazio soziokomunitarioko ekintzetan.

Lehenik eta behin, komunitatearen parte hartzea bereizten dute, norbanakoa talde baten barnean kokatzen da eta komunitatearen parte dela onartzen du, eta ondorioz, prozesuan aktiboki inplikatzeko da eta elkartasun sentimendua indartzen du.

Bigarrenik, bitartez sare sozialak sortzen dituen eta harremanak indartzen dituena. Honen bidez, eraldaketa eta garapen soziala bultzatzen da norbanakoen gaitasunak aberasten diren heinean. Ekintza boluntarioa izan behar da, irabazi asmorik gabekoa, alegia.

Ondoren, norbanakoaren eta herritarraren protagonismoa sailkatzen dute. Konfiantzaren bidez, norbanakoa gaitzen da, komunitate baten barnean bere bidea eraikiz eta inguruko errealitatea aldatzeko gai bihurtuz. Paulo Freireren hitzetan oinarritzen dira hausnarketa-ekintza prozesu bat lez definitzeko eta interbentzioa eta aldaketa sozialak eragiten dutela goraiatzeko.

Bereizgarri hauez gain, belaunaldi artekoa dela azaltzen dute Froufe eta Sanchez-ek, izan ere, haien aburuz, animazio soziokomunitarioak ez du adin konkreturik, eta beraz, edade guztietako pertsonen zuzendutako ekintza baten aurrean kokatzen gara. Honek adin ezberdina duten pertsonen batera jarduteko aukera ematen du, eta aldi berean, adinka sailkatzeko aukera.

Azkenik, bizi kalitatea hobetzen duela defendatzen dute egileek eta nolakotasun honen bidez prozesuan parte hartzen dutenen bizi kalitatea hobetuko da aurreikusitako helburua lortzerakoan.

Argi dago elementu ugari hartu behar direla kontuan animazio komunitarioko ekintza bat burutzeko baina pertsonen ongizatea eta garapena bilatzen den heinean, ezinbestekoa da guzti hauek ezagutzea. Parte hartze aktiboaren bidez norbanakoa garatzearen ondorioz, komunitatea bera ere aurrera joango da hazkuntza eta hezkuntza prozesu batean murgilduz.

1. 3. Modalitateak

Animazio soziokomunitarioaren testuinguraketa teorikoarekin jarraituz, modalitateen berri emango dugu hurrengo parrafoetan, azken finean, hauen arabera ekintzak helburu konkretu batzuekin gauzatuko dira. "Diziplina arteko eta belaunaldi arteko ekintza bezala,

norbanako eta taldeen bizitzako eremu ezberdinetan jarduten du animazio soziokomunitarioak" (Froufe eta Sanchez, 1998, 45. or.). Aipatu bezala, jomugaren arabera modalitate ezberdinak aurki ditzakegu eta oraingo honetan lau nagusienak aztertuko ditugu.

Animazioaren lehenengo modalitatetzat soziala zehaztuko dugu komunitatearen baitan kokatzen delako, hain zuzen ere. "Modalitate honek jendartearen mobilizazioari lehentasuna ematen dio parte hartze sozialari bideratutako talde eta asoziazioen sorrera eta sustapenaren bitartez" (Montenegro *et al.*, 2018, 4. or.). Froufe eta Sanchez-en (1998) arabera, honen helburua behartsuen eta zaugarritasun egoeran daudenak situazio horretatik askatzea litzateke.

Bigarrenik, modalitate kulturala ageri da, zeinaren arabera, "sormenean, ekoizpenean eta difusio kulturean zentratutako ekintzak dira. Horrez gain, interbentzio soziala, identitate kulturala eta adierazpen kulturala sustatzen du" (Montenegro *et al.*, 2018, 4. or.). Halaber, aipatu behar da taldea batasun moduan hartzen dela.

Jarraian, hezkuntzaren modalitatea aurki ditzakegu. Froufe eta Sanchez-ek (1998) Viché-ren (1988) hitzak ekarriz, animazioa hezkuntza informaleko ekintza bat lez ulertzen dute, zeinak eragiten du gazteak era integral batean hazkuntza prozesua aurrera eramatea hezkuntza proiektu zehatz batean oinarrituz.

Azkenik, modalitate ekonomikoa aurkezten digute Froufe eta Sanchez-ek (1998). Modalitate honen helburua kooperazioaren bidez lanpostu bat lortzeko aukera duten kolektiboak dinamizatzea da egile hauen arabera, eta horretarako, formazioa eta kudeaketaren uztarpenaz baliatzen da.

1. 4. Baloreak

ASK-ren modalitateaz gain, badira tresna honen bereizgarriak desberdintzen dituzten beste hainbat sailkapen, haien artean baloreen arloa aurki dezakegu. Komunitate kideen arteko harremanetan oinarritzen garenez, ezinbestekoa dugu erlazio hauek zaintzea partaide guztien ongizatea eta duintasuna bermatzen dela ziurtatzeko. Xavier Ucar-en (2018) aburuz, hurrengo sailkapena bereizi dezakegu:

1. Autodeterminazioa eta autonomia prozesuen aurreko pausua formazioa eta autoformazioaren beharra eskatzen du, maila indibidualean, taldeko mailan zein komunitate mailan.
2. Elkarrizketaren konfiantza eta pertsona, talde edo komunitatearen erlazio arteko gaitasuna.
3. Lan kooperatiboa eta taldeko edo komunitateko autokudeaketa gizakiaren

garapenaren eragile.

4. Giza taldeek duten erabakitze gaitasunaren konfiantza, talde dominantearen presiotik at.

5. Gizakien aukera eta gaitasuna pertsona izateko eta modu horretan jokatzeko segurtasuna.

Hori horrela izanik, hainbat balore aurkezten ditu autore honek, animazioaren heziketa soziala zehazten dutenak hain zuzen ere; autonomia, sormena, elkartasuna, malgutasuna, elkarlana, konpromisua, erantzukizuna, lana, kritika, konfiantza, heziketa eta elkarrizketa, esate baterako. Balio guzti hauek kontuan izan behar ditugu animatzaile soziokomunitarioko profesional lez, edota pertsonekin eta kideen arteko harremanekin jarduten dugun bakoitzean.

2. ASK-ren metodologia

Animazio soziokomunitarioko prozesuak burutzeko irizpide batzuk jarraitzearen beharra dago eta teknika sozial konkretu batzuk ezagutzea inprobisazioa saihesteko. Hala ere, Francisco Rafael Gomez-en iritziz (2018), metodologia konkretu bat ez da existitzen, baina proposamen metodologiko ezberdinak ageri dira, zeinetatik elementu komunak kontuan hartuz ASK-aren ikuspuntutik interbentzioa egokitzeko aukera eskaintzen digute eta elementu zehatz horiek hurrengo parrafoetan landuko ditugu.

Lehenik eta behin, Gomez-ek ASK-ren helburua zehazten du eta bere aburuz "iniziatiba kolektiboa sustatzea talde edo komunitatearen berezko garapen prozesuaren baitan" (Gomez, 2018) litzateke. Hortaz, interbentzioaren pausu bakoitza taldeak berak aurrera eraman behar du, euren garatzeko gaitasunen arabera eta kasu guztietan animatzailearen laguntzaz, autoreak azaltzen duen bezala.

Prozesuaren hasierako elementu lez errealitatearen azterketa zehazten du egileak. Honen bidez animatzaileak esku-hartuko duen errealitatea ezagutzeaz gain interbentzioaren hartzailak direnei euren errealitatea onartzeko aukera ematen die eta haien interesen eta beharren kontzientzia pizten die. Horretaz gain, beharrezkoak diren aldaketak burutzeko zailtasunak identifikatzea ahalbidetzen du eta hauen aurrean aurkezten dituzten gaitasunen berri izatea nabarmentzen ditu Gomez-ek. Horretarako, "kolektiboak berezko errealitatearen inguruan duen diskurtsoa analizatzea ezinbestekoa da" (Gomez, 2018), azken batean, honek ezarriko du bilatzen duten errealitate mota, eztabaidaezina dena.

Jarraian, ASK-ko ekintzak planifikatu behar direla defendatzen du egileak, interbentzioaren pausuak jarraituz puntu guztiak egingarri bihurtu daitezke. Hau da, "animatzailearen interbentzioaren presentzia murrizten joan behar da taldea berezko interbenitzeko gaitasuna handitzen joaten den heinean" (Gomez, 2018). Oro har, lehenetsiak identifikatzeko prozesua da hau, hots, komunitateak helburuak zehazteko momentua eskaintzen du, estrategiak definitzen dira, baliabideak antzematen dira eta ardurak eta ekintzak banatzen dira jarraibide honen baitan. "Planifikazioa etengabe aldatzen doa errealitatearen pertzepzioa aldatzen den neurrian" (Gomez, 2018).

Planifikazioaren ondoren, ekintzak identifikatzen ditu egile honek eta hauek "atseginak eta aberasgarriak izan behar dira gauzatzen dutenentzat" (Gomez, 2018). Sormenaren beharraz gain eginkizun hauek parte hartzea sustatu behar dutela azaltzen du, hau da, berezko gaitasun eta baliabideetatik abiatu behar dira. Ekintza, plangintza bezala, ez da momentu puntual bat, baizik eta etengabeko dinamika bat.

Metodologiaren hurrengo pausuarekin gauza bera gertatzen da, alegia, ebaluazioa ezin da izan prozesuaren bukaerako gauzatze konkretu bat, izan ere, Gomez-en aburuz, prozesu osoan zehar iraunkorra den elementua da, parte hartze handia eskatzen duena.

Ebaluazioa ez da bakarrik, ezta orokorrean ere ez, emaitzen kuantifikazio soil bat, baizik eta, batez ere, prozesuaren aintzatespena, onarpena eta aitortzea da. Taldean eragindako aldaketan eta errealitate zehatz baten eraldaketa lortzeko egindako bidearen kontzientzia hartzea da (Gomez, 2018).

Prozesuan zehar emandako pausu ezberdinetan ikusi dugun moduan, interbentzio osoan zehar elementu komun bat ageri da, parte hartzea, alegia. Beraz, metodologia parte hartzaile baten aurrean kokatzen gara, izan ere, "metodologiaren momentu edo fase guztietan taldea edo komunitatea inplikatzeko dituzten prozesuak sortzen ditu" (Gomez, 2018).

Egilearen esanetan, metodologia parte hartzaile bat den heinean malgua izaten da, interbentzioaren momentu bakoitzean aldakorra baita. Hau da, "hartzaileen aportazioen, interesen, kezken eta mugen arabera eraldatzen eta aberasten da" (Gomez, 2018).

3. ASK profesionalaren profila

Francisco Rafael Gomez-ek (2018) bi galdera botatzen dizkigu *Zer egiten du animazio soziokulturaleko profesional bat? eta Zelan antolatzen du bere lana?*. Atal honetan zehar bi galdera horiek erantzuten saiatuko gara profesional hauen profila zehazten dugun heinean.

Egile honek (2018) bi multzo bereizten ditu, eta lehenik eta behin funtzioak erreparatuko ditugu.

- Aldaketarako prozesuak bultzatzen ditu, bizi kalitatea bermatzeko eraldaketak bilatzen ditu: parte hartze soziala motibatzen, errazten eta dinamizatzen du gaitasun pertsonala zein kolektiboa garatzeko eta protagonismo eta autonomiaren bidez errealitate konkretu bat eraldatzen du, bizi kalitatea hobetuz.

- Metodo eta helburu lez parte hartzea sustatzen du: parte hartze sozialaren sarea indartzen eta zabaltzen ditu.

- Errealitatearen ezagutza eta azalpena bilatzen du: errealitatearen aldaketarako prozesu oro behar eta baliabide batzuetatik bideratzen da errealitate konkretuaren arabera, eta beraz, profesionalak komunitatea eta ingurua analizatu eta ezagutu behar du.

- Balore batzuen bidez irakasten du: zeregin honek hezkuntza dimentsioa bereganatzen du, izan ere, profesionalak kudeaketa sozialaren ikaskuntza prozesua errazten du, eta horrekin batera, portaerak aldatzen, gaitasunak garatzen, trebetasun indibidualak lantzen eta elkartasuna, errespetua, interkulturalitatea eta elkarbizitza baloreak barneratzen laguntzen du.

- Ekimena bultzatu eta komunitate sentimendua sortzen du: taldearen motibazioa suspertu, ahalduntzea ahalbidetu eta sormenaren garapena erraztu egiten du eragile nagusia bihurtuz.

- Bitartekari papera bereganatzen du: eskaerak jasotzen ditu eta negoziazioak bideratzen ditu hartzailleekin harremanak etengabe zainduz.

- Taldeekin egiten du lan, bere elkarteak bultzatzen du eta ardurak hartzen ditu: Animatzailea komunitatearen zerbitzuan kokatzen da, eta ondorioz, taldearen autonomia eta autokudeaketa bilatzen laguntzen du.

- Lurralde konkretu batean mugitzen da: auzo, elkarte, komunitate... zehatz batekin egiten du lan eta horretarako lurraldea ezagutu behar du eta harremanak sortu behar ditu.

Bigarrenik, Gabriel Rafael Gomez-ek (2018) animazio soziokomunitarioko profesioak izan behar dituen gaitasunak zehazten ditu, hurrengo sailkapenean ageri direnak, alegia.

- Ideologia eta kritikotasuna: etengabeko kritikotasuna garatu behar du, errealitatearekiko konpromisu baten ondorioz. Horretaz gain, berezko mugak ezagutu behar ditu eta autokritika eraikitzekeo abilezia izan behar du. Aurreiritziak alde batera

uzteko gai izan behar da eta taldeari berezko identitatea eraikitzeak aukera eskaini behar dio bere baloreak inposatu gabe.

- Konpromisua eta inplikazioa: profesionalak ez du kanpotik esku hartzen, hots, komunitatean integratu behar da eta interbentzioa garatuko duen errealitate sozialaren parte izan behar da.

- Ikuspuntu orokorra eta integrala: helburu globalak proposatzeko gai izan behar da eta egunerokotasunean esku hartu behar du.

- Behatzeko, entzuteko eta komunikatzeko gaitasuna: komunikazioa profesionalaren oinarriko elementua da eta horregatik, pertsona enpatikoa eta elkarrizketarako irekia izan behar da.

- Koordinazioa eta elkarlana: osagai askotariko errealitate batean interbentzioa aurrera eramaten den heinean ikuspuntu ezberdinak behar dira eta kulturaren beste profesionalekin elkarlana burutzeko gaitasuna izan behar dute.

- Txukuna eta malgua izan behar da: sistematikoa izan behar da baina egoera eta aldaketa ezberdinetara egokitzen jakin behar du.

- Sortzailea: imajinazioa eta sormena lan honen oinarria eraikiko du.

- Formazioa: gaitasun batzuk norberarenak izan arren, beste batzuk trebatzearen bidez ikasten dira.

- Metodologiaren erabilera: aurreikusitako helburuen arabera metodologia egoki bat erabiltzeko gaitasuna izan behar du.

- Kudeaketa eta tresnak erabiltzeko gaitasuna: prozesuen epea koherentziaz zehaztuko du eta beharren arabera tresnak eta teknikak erabiliko ditu.

- Esperientzia: profesionala bere esperientzia kontuan hartzeaz gain, taldearen bizipenak gogoan izan behar ditu, aldaketarako prozesua esperientzia horretatik bideratzeko.

4. ASK-rako jardunbideak

Laugarren atal honetan zehar, Ezequiel Ander Egg soziologoari erreferentzia egingo diogu, izan ere, autore honek ASK-ren teorizazio ugari landu ditu liburu ezberdinetan aurkeztu dituenak. *Metodología y practica de la animación sociocultural* izeneko liburua horietako bat da eta oraingoan bertan zehazten dituen jardunbideen bost kategoria nagusien

azterketa burutuko dugu, hainbat adibiderekina batera.

Lehenik eta behin, soziologoak (2000) formakuntza jarduerak zehazten ditu eta azaltzen duen lez indibiduo, talde edo komunitatearen interesen arabera izan behar dira hauek. "Ezagutza norbereganatzea eta era ikasi eta kritikoan arrazoimena erabiltzeko eta garatzeko laguntzen dute jarduerak" (Ander-Egg, 2000), eta multzo honen baitan, tailerrak, kursoak, mintegiak, konferentzia zikloak, mahai-inguruak, debateak, lan-bilerak, kultur zirkuluak eta helduen hezkuntza bernebiltzen ditu. Hortaz, egunerokotasunean parte hartzen ditugun ekintza ugari formakuntza jarduerak direla ondorioztatu dezakegu, hala nola, sukaldaritza tailerrak, hizkuntza kursoak edota urtero gizarte langintzako fakultatean antolatzen diren jardunaldiak.

Jarraian, hedapen kulturalako jarduerak aurkezten dizkigu Ander-Egg-ek, eta "ondasun kulturaletara iristea errazten duten jarduerak" (Ander-Egg, 2000) moduan definitzen ditu ekintza hauek. Alde batetik, ondasun heredatuak sailkatzen ditu, monumentu historikoak eta museoak jasotzen dituenak, esate baterako. Bestalde, kultura bizia deituriko eremua goraiatzen du autore honek, arte galeriak, liburutegiak, fonotekak eta bideotekak bilduz. Ondasun heredatuaren barnean, erakusketa ezberdinak sartu ditzakegu, gerra zibilaren inguruko esposizio bat adibidez edota gerra zibilak eragindako hildakoen omenez eraikitako estatua bat. Oro har, turismo kulturalak sustatzen dituen ekintzak dira hauek eta gaur egungo jendartean nabarmentzen ari direnak. Halaber, kultura indartzen duten liburu, bideo, koadro eta abarrak ere kultura biziko jarduerak izaten dira, hala nola, euskal kulturaren berri ematen diguten dokumentu ezberdinak.

Hirugarrenik, jarduera artistiko ez profesionalak ageri dira, eta hauen artean "adierazpena errazten duten jarduerak, eta sormenerako lengoaiak ezagutu zein berriak adierazpen forma berriak bilatzeko bide ematen duten jarduerak" (Ander-Egg, 2000) aurki ditzakegu. Kategoria honetan, arte popularra (buztingintza, ehungintza...), arte bisualak (pintura, eskultura, tatuajea...), arte eszenikoak (antzerkia, txotxongiloak...), dantza (ballet-a, jazz dantza...), musika eta kantua (operak, tunak...), hizkuntza eta literatura (literatura tailerrak, aldizkariak...), eta kultur forma berriak (argazkigintza, ordenagailuarekin sortutako artea...) azaltzen ditu soziologoak. Jardunbide hauen baitan sormena ezinbesteko elementua dela ikusi dezakegu eta azken batean gogamenean daukagun hori irudikatzean edota errealitatean bihurtzean datza, besteak beste, sortzen dugun pelikula baten bidez, diseinatzen dugun soineko baten bidez edo azalean tatuatzen dugun marrazki baten bidez.

Ondoren, jarduera ludikoak nabarmentzen dira ASK-rako jardunbideen sailkapen honetan eta hauen artean "jarduera fisikoak, kirolezkoak eta aire librekoak gorputzaren eta garatze fisikoa laguntzen dutenak" (Ander-Egg, 2000) bereizten ditu egileak. Aisia aire librean, natura eta ingurugiroaren babesa, birsortzea, entrenamendu jolasak, gimnasia, heziketa fisikoa, joga, taitxi, arte martzialak eta kirolak osatzen dute esparru hau. Jarduera ludiko hauek aisialdia osatzen dute eta aurrerago sakonduko dugun lez, eguneroko bizitzaren

zati handi bat hartzen dute ekintza hauek. Gure inguruan adibide ugari ditugu, umeentzako udalekuak, barnetegiak, ibilaldia eta gazte danbada, beste askoren artean.

Hauetaz gain, jarduera sozialak proposatzen dizkigu soziologoak, zeinetan "elkarterbizitari eta behar kolektiboari arreta eta konponbidea ematea errazten duten jarduerak" (Ander-Egg, 2000) burutzen dira. Jarduera hauen artean, festak, bilera eta topaketak antolatzea, auzoak mobilizatzea ekintza bateratuak egiteko, gizarte mugimenduetako erakundeak/taldeak indartzeko ekintzak (auzo elkarteak, ekologistak, bakegintzakoak, feministak, etb.) esanguratsuenak dira. ASK-rako jardunbideen azken esparru honetan, aurten ospatutako Euskaraldia dugu adibide garrantzitsu lez, izan ere, aktibazio sozialerako ariketa honek Ander-Egg-ek aurkezten dituen jarduera sozial guztiak barnebildu ditu, herri ezberdinetan sortutako jaialdiak, topaketak eta euskaltzaleen komunitatea indartzeko ekintza ezberdinak, hain zuzen ere.

Animazio soziokomunitarioko prozesuetan komunitatearen parte hartzea sustatzeko ekintza hauek oso eraginkorrak izaten dira garapen indibiduala zein talde gaitzuntza bultzatzen dutelako. Beti ere, taldearen ezaugarriekin bateragarriak direnean, azken batean, kideen adina, kultura, interesak eta bestelako elementuek jardunbide hauen nolakotasunak zehaztuko dituzte.

5. ASK-ren gaur egungo egoera

Betidanik ezagutu dira gatazka sozial ezberdinak eta hauen aurrean ezarritako neurriak. Baina Andrés Escarbajal (1992) adierazten duen bezala, 60. hamarkadan pentsamendu funtzionalisten aurrean gizarte langintzaren norabide berri bat gailendu zen, zeinak komunitatearen hobekuntza bilatzen zuen gizarte kideen bitartez, ongizate soziala lortzeko helburuarekin. Gaur egun komunitateak berak eta kideek euren beharren arrazoen kontzientzia hartu behar dute eta aldaketa soziala bilatzen duten estrategiak aurkeztu behar dituzte.

Gizarte zerbitzuek betidanik konpontzen saiatu diren arazoak ez dira salbuespenak izan eta beraz, ez dituzte konponbide indibidualak eskatzen, baizik eta komunitatearen egoera sozialean dute jatorria eta egoera honen eraldaketan aurkitzen da animazio komunitarioaren jomuga (Andrés Escarbajal, 1992, 98. or).

Halaber, autore honek diziplina honen eredu paternalista diktadura erregimenarekin lotzen du, izan ere, biztanleei arazoak kudeatzeko gaitasuna ezeztatzea arriskutsutzat hartzen du demokrazia baten baitan. Egileak Besnard-en (1988) hitzak erabiliz, ASK-ren zeregin nagusiak zehazten ditu, alegia, gizataldea dinamizatzea, komunikazioa ahalbidetzen duten baldintzak eratzea, gaitasun kritikoa garatzea eta komunitatearen autonomia eta burujabetzea

sustatzea.

Francisco Rafael Gomez-en aburuz (2018) 90. hamarkadan animazio soziokomunitarioa interbentzio sozio-hezitzailearen estrategia bezala zabaldu da, batez ere talde konkretuekin esku-hartzeko, babesgabetuekin eta baztertuekin, esaterako.

Horretaz gain, autoreak azaltzen duen bezala (2018) XX. mendeko azkenengo hamarkadetan animazio soziokomunitarioko goi mailako zikloa agertu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan 1985. urtean sortu zen, hain zuzen ere. Urte batzuk geroago, 90. hamarkadaren bukaeran alegia, garaira arte boluntarioek burututako jardunbidea formalizatu zen unibertsitatetan formakuntza eskainiz. Baina unibertsitateko ikasketa hauek gizarte langintza eta gizarte hezkuntza dira, ez baitute ASK profesionalak heitzeko ikasketa unibertsitariorik eskaintzen.

Gomez-en teoriarekin jarraituz, aipatutako ikasketa unibertsitarioak sortzearekin batera animazio soziokomunitarioarekin harremandutako guztiak gainbehera nabarmena bizi zuen, izan ere, diziplina hauen baitan momentu horretara arte existitzen ziren formakuntza ezberdinak profesional bakarrean elkartu ziren.

"XXI. mendearen lehenengo urtetan, ASK-ri buruz oso gutxi hitz egiten zen, eta ez dira ageri terminologia hau erabiltzen duten argitalpen gehiegirik" (Gomez, 2018). Gainera, defendatzen duen bezala, azkenengo hamabost urteetan diskurtso dinamiko eta itxaropentsu batetik existitzen ez den diskurtso batera igaro da. "Administrazio publikoek eredu anglosaxoia aukeratu dutela dirudi, zeinek komunitatearen garapena nabarmentzen du animazio soziokulturalaren aurrean" (Gomez, 2018).

Hori horrela izanik, Maria Cruz (2010) irakasleak profesional/boluntario eta instituzional/asoziatibo dikotomiak zehazten ditu, bakoitzak berezko modua aurkezten duen bitartean, hala nola, parte hartzean oinarritutakoa, motibazioan oinarritutakoa, ekintzen kontsumismoan oinarritutakoa eta eraldaketan edota garapenean oinarritutakoa.

Gizarte langintzaren zimenduak bigarren maila batean geratzen dira instituzio ezberdinen animazio soziokomunitarioaren programazioetan parte hartzea, kontzientziazioa eta eraldaketa moduko baloreak errespetatzen ez direnean, bakarrik bilatzen dutelako ekintza edo aktibitateak gauzatzea, animazioaren berezko metodologia bat erabili gabe (Cruz, 2010, 9.or).

Hala ere, Francisco Rafael Gomez-ek (2018) beste herrialde batzuen ASK-ren egoerari egiten dio erreferentzia eta hauen situazioa aipatzearen beharra daukagu, Europako hainbat herrialdeetan zein Hego Amerikako herrialde batzuetan ASK-ren errealitate ezberdin bat ezagutu baitute. Portugalen, esaterako, "duela urte batzuk animazio soziokulturalaren inguruko mugimendu garrantzitsu bat ageri da eta unibertsitateko lizentzia espezifikoa onartu dute animazioko profesionalei formakuntza eskaintzeko" (Gomez, 2018). Frantzian, aldiz,

animazioaren esparrua hain indartsua denez, homologatutako bost maila ezberdin ezagutzen dituzte eta animazioaren diskurtsoa azken urteotan gailendu da J.P. Augustin-en eta J.C. Gillet-en obren ondorioz. Egileak (2018) azaltzen duena kontuan hartuz, azkenengo honek eredu teoriko interesgarri eta berritu bat garatu du gaur egungo animazio soziokulturalerako profesionalen funtzioa dinamika komunitario ezberdinetan ulertzeko eta interpretatzeko. Maria Cruz-ek (2010) Hego Amerika erreparatuz gero, Paulo Freire autoreari egiten dio erreferentzia aitzindari lez eta bertako ASK hezkuntza popularra bezala aurkezten digu. Halaber, autore honek Ezequiel Ander-Egg-en hitzak ekartzen dizkigu, animazio soziokulturala dominazioaren mekanismo ideologiko-kulturalen deseraikitzean arreta jartzen duen bitartean, hezkuntza popularra herriaren antolaketan eta oinarrian dauden organizazioak indartzean zentzutzen da.

6. Esperientzia errealak

Dosieraren seigarren atal honetan, animazio soziokomunitarioko bi adibide partekatuko ditugu. Azalduko diren esperientziak errealitatean aurrera eramandako proiektuak dira baina toki ezberdinetan kokatuta. Lehenik eta behin, *“ExpresArte” esperientzia musikal batean oinarritutako animazio soziokulturaleko proiektua* aurkeztuko da eta Laura Martinez-ek (2015) Espainiar estatuan egindako proiektu baten diseinua ageri da lehenengo adibide honetan. Beste alde batetik, *Piura-Peruko unibertsitateak sustatutako animazio soziokulturaleko eta boluntarioen esperientziak* izendatutako proiektu baten berri eman dugu eta horretarako Diana Aguirre (2018) ikasleak egindako tesiaz baliatu gara. Bigarren hau Peruko iparraldean kokatutako komunitate batean burututako ASK-ko proiektu bat azalduko da, hain zuzen ere.

“ExpresArte” esperientzia musikal batean oinarritutako animazio soziokulturaleko proiektua

Testuingurua:

Laura Martinez-ek ASK-n oinarritutako proiektu baten diseinua aurkeztu du Segobiako Cantalejo herrian aurrera eramateko. Landa eremuko gizarteetan garatzeko arazoak gailenduz doaz, izan ere, herri hauen biztanleriaren zahartzea gailendu da, beste asko hiri handietara mugitu dira despopulatzea eraginez eta gainera, brexa digitalak ezberdintasun handiak sortu ditu eremu hauetan. Landa eremuaren bateragarritasuna eta garapena lotuta doaz eta hare gehiago komunitateko kideen bizitza kalitatearen hobekuntza bilatzen bada.

Bizi kalitatea hobetzen duten elementuen artean, pintura, musika, zinema, eskultura,

literatura eta antzerkigintza aurkezten dira, zeinak teknikak eta prozesuak eskaintzen dizkio gizakiaren adierazteko gaitasunari. Gizaki jakintsua edo pentsamenduaren gizonaz definitzeaz gain, gizaki artisautzat edo gizaki ekoizletzat hartzen da norbanakoa, izan ere, gizakien eboluzioa artearen bidez garatu da.

Animazio soziokomunitarioko profesionalek jakintza, balore eta kulturaren transmisioan estrategia dinamikoaz eta parte hartzaileaz baliatzen dira. Modu horretan, musikak kulturari egiten dion ekarpenik garrantzitsuena komunikazio ez semantikoa da, adierazteko hizkuntza eskaintzearen bidez eta sentimenduen elkartrukea ahalbidetzearen bidez. Adierazteko gaitasuna komunikazioaren esanahi subjektiboa hartzen du.

Proiektua:

Proiektu hau Cantalejo herrian ageri den eskolan kokatu da eta bertako 64 ikasleei zuzendu zaie 8-12 urte artekoak, izan ere, garapen psikologikoaren ikuspuntutik adin tarte hau egokiena da kooperazioa bezalako errol sozialak eraikitzeke, irabazten eta galtzen ikasteko eta norbera bere buruan arreta jartzeko.

Hartzaileaz gain, proiektuaren antolatzaileak proiektuaren partaide bihurtzen dira eta hauen artean animazio soziokulturaleko profesionalak eta boluntarioak ageri dira, hala nola, senideak eta auzokideak. Halaber, "CEIP Los Arenales" gurasoen elkarte eta Caltarejoko udala proiektua babesten dute. Oro har, ekintzak eskolan burutzen dira, baina eginkizun konkretu batzuk herriko zentro kulturean burutzeko aukera egongo da.

Proiektu honen helburu nagusia animatzaileen papera indartzea izango litzateke, eskola orduetatik at baina komunitate akademikoaren baitan eta eskola instalazioak erabiltzeko aukerarekin animazio soziokulturaleko ekintza burutu ahal izateko. Beti ere, haurrak eta komunitatea partaidetza aktiboa bereganatu behar dute.

Metodologiari dagokionez, oro har, malgua, bideratua, parte hartzailea, aktiboa eta hartzaileen interesetan oinarritutakoa izan behar da. Horregatik, hurrengo sailkapenean ageri diren puntu ezberdinak izan dira metodologia honen oinarri:

- Dinamikoa eta moldagarria, hau da, aurre ikusitako ekintzak egon arren, guztiak malguak izan behar dira eta aldaketak egiteko aukera eman behar dute.
- Motibatzailea izan behar da hartzaileen beharrak, ezinegonak eta interesak kontuan hartu behar dituelako.
- Aktiboa, esperientzia pertsonalean oinarritu behar da.
- Erreflexiboa, hots, analisia eta gogoetaren bidez jakintza eta kritika eraikitzeke aukera eman behar du.

- Sormenena kontuan hartu behar du pertsona eta taldearen adierazteko gaitasunak lantzeko.
- Parte hartzailea izan behar da proposatzen diren ekintza guztiak bultzatzeko.
- Solidarioa, indibidualizazioa gainditu behar baitu.

Proiektuaren garapenerako irizpide konkretu batzuk kontuan hartu behar dira hauen bitartez hartzaileen gabeziak eta eskaerak ezagutzen direlako. Metodologia honen baitan behar hauen lehentasunak zehaztu behar dira komunitatearen bizi kalitatea hobetzeko eta etengabeko berrikuspen bat burutu behar da ematen diren aldaketan identifikatzeko. Gainera, hezkuntza zentroan bilerak egingo dira proiektua bultzatzeko, iritzi ezberdinak jasotzeko eta helburu eta ekintzen inguruko proposamenak partekatuzko.

Emaiza:

Proiektu baten diseinua den heinean ezin ditugu proiektuaren emaitzak atera baina ebaluazio irizpideak azaltzea komenigarria ikusten dugu. Egitura honen baitan hiru ebaluazio mota aurkezten ditu egileak. Lehenik eta behin hasierako ebaluazioa gauzatuko da, zeinean parte hartzaileen nahiak aztertzen dira saioak interes horien arabera zuzentzeko. Ondoren, ebaluazio jarraia ageri da, parte hartzaileen proposamenak aztertzeko aukera ematen duelako eta animatzaileen partetik planteamendu berriak ahalbidetzen dituelako, izan ere, etengabeko hobekuntza prozesu baten baitan egon behar da proiektua. Horretaz gain, hainbat elementu egunero ebaluatuko dira, hala nola, asistentzia, espazioa eta denbora. Azkenik, bukaerako ebaluazioa burutuko da prozesu osoaren azterketa gauzatzeko eta lortutako emaitzak analizatzeko dira. Halaber, parte hartzaileen iritzia partekatuko dira eta etorkizunera begira proposamen ezberdinak zabalduko dituzte partaideek.

Interbentziorako proiektu honek epe luzerako ikuspuntua eskatzen du etengabeko garapen indibiduala eta soziala lortzearekin batera, azken batean, zerbitzu batzuk aurkezten dituzten ekintza soilak saihestu behar dira. Lerro hauetan zehar diseinatutako proiektuak parte hartzaileen arabera etengabeko eraldaketa biziko du, eta era berean, emaitzak ebaluatzeko modua.

Piura-Peruko unibertsitateak sustatutako animazio soziokulturaleko eta boluntarioen esperientziak

Testuingurua:

Ima Tallán izendatutako proiektua Piura-Peruko unibertsitateko ikasle boluntarioek aurrera eramane zuten, eta honek eragin zuen Campiña Catacaos komunitatean animazio soziokomunitarioa oinarri bezala ezartzea kulturaren eragile dinamizatzaileak komunitateko kideak izateko. Tailer ezberdinen bidez, hala nola, hezigarriak, artistikoak eta kulturalak,

bertako identitatea indartzea bilatzen dute, eta horrekin batera, haurren, gazteen eta emakume artisauen gaitasunak garatzea. 2013tik gaur egunera arte, patrimonio kulturalaren defentsa lanketa solidarioarekin harremanetan jarri du proiektuak boluntarioen bitartez, komunitatearen zabalkuntzan eta parte hartze aktiboan garrantzia jarritz.

Catacaos lurraldea Piura hiriaren hegoaldean kokatuta dago, 12km-tara hain zuzen. Bertan herriek haran batez inguratuta daude, non arroza, tipula, artoa eta kotoia ekoizten den eta horregatik bertako gehienek nekazaritzan jarduten dute. Hala ere, beste arlo askotan gabezia handiak pairatzen dituzte, oinarrizko saneamenduan, kalitatezko hezkuntzan eta osasun arretan, esate baterako.

Catacaos-en Peruko iparraldeko kapelagile talde esanguratsuenetariko bat aurkitu dezakegu, XVIII. mendean sortutakoa. Talde hau Pedregal Grande, Pedregal Chico eta La Campiña herrixketako ehuleek osatzen dute.

Lastozko kapelen emakume kapelagileen seme alabak bazterketa sozialean aurkitzen dira gaitasun pertsonalak garatzeko zailtasunak baitituzte eta kalitatezko hezkuntza lortzeko aukera urriak direla eta. Hori horrela izanik, hezkuntza ez formaleko programak beharrezkoak dira haur hauen formakuntza osatzeko.

Proiektua:

2013 urteko uztailetik abendura aurrera eraman zen prozesu hau Piurako unibertsitatearen eskutik elkarte batzuen laguntzaz. Lan taldea zortzi ikasle boluntario eta kulturako lau profesional bezala osatuta zegoen.

Proiektu honek artisauen kultura eta tradizioak berreskuratzea bilatzen zuen Catacaos-eko herrixka ezberdinetan, eta horretaz gain, gazteen iniziatiba eta sormena bultzatu nahi zuen familia artisauen bizitza kalitatea hobetzeko nahian. Hori dela eta hurrengo helburu nagusia definitu zen: Emakume ehuleei zuzendutako erakartze proiektu bat diseinatzea eta inplementatzea eta animazio soziokulturaleko profesionalak trebatzea kapelagileen teknikak berreskuratzen laguntzeko. Horretarako, gaitasunak indartzeko programak diseinatu ziren, batetik emakume artisauei zuzendutakoa euren teknika hobetzeko asmoz, eta bestalde, ehule gazteei zuzendutakoa pertsona hauek animazio soziokulturaleko profesional bezala prestatzeko komunitateko gainontzeko gazteen tradizioekiko interesak motibatuzko.

"Treatzaileak trebatzea" izeneko proiektu bat planteatu zen unibertsitateko ikasle boluntarioen eskutik, Boluntariotza Kulturala programaren bidez. Ikasle hauek komunitateko gazteen, jakintzak, gaitasunak eta portaerak garatzera bideratu ziren, artisauen praktika sustatzea ahalbidetzeko, eta ondorioz, gazteen parte hartzea lortzeko. Formakuntza hau proiektuaren oinarri sendo bat bihurtu zen, izan ere, prozesu hau era egokian gauzatzeko animazio soziokulturaleko eskatzen dituen gaitasun zehatzak indartzen ditu.

Sei gazte ehulez osatutako talde bat antolatu zen eta hauek lehenengo ahalduntze tailerrak jaso zituzten, bozeramaile nagusietan bihurtuz eta 17-22 urte arteko gazteak erakarriz lastoz egindako kapelen teknika ikasleko eta animazio soziokulturaleko formakuntza programan parte hartzeko. 30 gazte inguru programarekin hasi ziren eta hauetatik 20k animatzaileen taldea osatu zuten. Formakuntzan lau gai nagusi lantzen ziren: historia eta berako ondarea, animazio soziokulturaleko teknikak, hurrekin lan egiteko estrategiak eta ehungintza tailerra. Modulu ezberdinak prestatu zituzten eta bi hilabetetako formakuntza jaso ondoren euren zeregina burutzeko gaitasunak zituzten eta era boluntario batean bi eskola ezberdinetan tailer artisauek eta artistikoak aurrera eramane zituzten 8-12 urteko umeekin.

Animatzaile gazteen motibazioa pizteko aliantza estrategikoak martxan jarri ziren, hala nola, diru irabazi txiki bat jasotzea. Horretaz gain, heziketa kulturaleko produktu bat eratu zen hirietako umeei zuzendutakoa Campiña-ko tailerrean parte hartzea eskaintzen zuena. Ekimen hau, beste batzuekin batera gazteen lanketa luzatu zuen 2014. urtean zehar Ima Tallán deritzon proiektuaren baitan.

"Kapela didaktikoa" bezala ezagututako estrategia metodologikoa indarra hartzen hasi zen, argazkien, bideoen eta dokumentu ezberdinen bidez publikoa eta animatzailearen arteko parte hartze interaktiboa sortzen zen eta hartzaileak motibatzea lortu zuen, umeak batez ere. Estrategia honen planteamendurako kulturaren kudeatzaileen eta irakasleen arteko elkarlana gauzatu zen, programazioa, dokumentuak eta diziplinariako ekintzak zehazteko. Material hau formakuntza saio bakoitzean lantzen diren gaien motibazioa pizteko bitartekoa izan zen.

Eraitza:

Animatzaile soziokultural gazteek talde sendo bat sortu zuten 2014 urtean zehar eta ONG baten diru laguntza jaso zuen Ima Tallán proiektuak. Alde batetik, eskaintzen zuen formakuntzari jarraipena emateko asmoarekin, eta bestalde, eurek sortutako produktuak Lima hiriko merkatu batean zabaltzeko aukera proposatu zion ONG-ak.

Lastozko kapelaren proiektua komunitatearen parte hartze aktiboa indartzean jartzen zuen jomuga eta prozesu motel bat izan arren, kideak aberasten ditu komunitatea bere kulturarekin bat egiten duela ikusten dutenean eta garapen jasangarria lortzen dutenean, sormena bezalako erramintaz baliatuta.

7. Gure bizipenak

Dosierraren sarreran aipatu dugun bezala, Gizarte Langintza graduaren baitan Gizarte eta Komunitate Animazioa ikasgaia aurkitzen dugu eta bertan animazio soziokomunitarioaren berezitasunak, ezaugarriak, autore ezberdinak eta abarrak lantzearekin batera hainbat erronka aurrera eramane ditugu. Hamar erronka zehaztu ziren kurtso hasieran bost pertsonetako taldeetan erronka horien prestaketa burutzeko eta batzuen kasuan, erronka bera gure fakultatean gauzatu da laugarren mailako ikasle orori zuzenduta. Hortaz, ikasgai honen baitan egindako lau erronken bizipenak azalduko dira, ahaztu gabe erronka guztiak animazio soziokomunitarioko ekintzak izan direla.

Euskaraldia

Lehenik eta behin, nire taldeak garatutako erronka aurkeztuko da, eta hura Euskal lurralde osoan aurrera eramandako Euskaraldia Gizarte Langintzako fakultatera ekartzea izan da, hain zuzen ere. Euskaraldia aktibazio sozialerako ekintza bat den heinean ASK-ko ekintzen ezaugarri oro betetzen ditu eta hala baieztatu genuen egitasmoa lantzen hasi baino lehen. Izan ere, *belarriprest* eta *ahobizi* errolen bitartez parte hartze aktiboa izatera konprometitzen dira parte hartzaileak eta horrekin batera herritarrek norbanako eta talde protagonismoa bereganatzen dute euren bidea eraikitze gaitasunak lortuz eta errealitatea aldatuz. Gainera, belaunaldi arteko harremanak ahalbidetzen ditu egitasmo honek, bizi kalitatea hobetzearekin batera aurreikusitako helburua eskuratzen denean, euskararen erabilera handitzea, alegia. Hori gutxi balitz, aurrerago aipatu den moduan, Ander-Egg autorearen sailkapenaren arabera jarduera sozial lez identifikatu daiteke egitasmo, azken batean, egitasmo hau gauzatzeko bilera, topaketak eta festak aurrera eramane dira, beste ekintza batzuen artean.

Euskaraldia Gizarte Langintzako Fakultatean zabaltzeko ekintza ezberdinak burutu ziren baina hauen prestakuntza eta plangintza bilera ezberdinen bidez aurrera eramane zen, ikasle zein irakasleen arteko topagune ezberdinen bidez. Bilera hauetan parte hartzeko gonbidapena ikasle orori zabaldu zitzaion sare sozialen bidez baina hauen parte hartzea nahiko urria izan zen. Beraz, talde eragilea osatzen genuen kideok ekintza guztiak aurrera eramane genituen eta horretarako beharrezko materiala lortu genuen eta ekintzen parte hartzea bultzatzen saiatu ginen. Aktibitateen artean, argazki masibo bat atera zen, *photocall* bat eraiki zen, bizipenen murala jarri zen eta kafe tertulia bat gauzatu zen, esate baterako.

Balorazio orokor bat egin ezker, esan dezakegu gogotsu hartu genuela erronka, izan ere, euskararen aldeko ekimen bat den heinean prest geunden aurrera eramateko eta proposamen ugari izan genituen. Baina gure motibazioa gutxitu zen parte hartzea murriztua zela ikusita eta beraz, animazio soziokomunitarioak eskatzen duen parte hartze aktiboa ez zen gure fakultatean nabarmendu.

Hala ere, Euskaraldia ekimenak Euskal Herri mailan lortutako indarra aipatzekoa da, 200.000 lagun inguru bilduz. Hortaz, ondoriozta dezakegu maila orokorrean aurre ikusitako helburuak lortu direla, norbanakoari protagonismoa ematearen bitartez eta komunitatearen gaikuntzaren bidez. Hori gutxi balitz, animazio soziokomunitarioko ekintza oro lez Euskaraldiak kezka sozial bati aurre egiten dio, errealitate bakoitza ezagutuz, kasu honetan egoera soziolinguistikoa aztertu da adibidez, eta situazio horretara egokitu dira ekintza zehatzak.

Aisia eta gizarte langintzari buruzko tertulia dialogikoa

Bigarren erronka hau klase kide talde batek aurrera eramandakoa da eta oraingo honetan klasean bertan burututako ekintza baten aurrean kokatzen gara. Bigarren erronka honetan, nola ez, animazio soziokomunitarioko ezaugarriak barne biltzen dira, parte hartze aktiboa eskatzen duen tertulia dialogiko bat izan baita. Tertulian aisiaren gaia lantzea aurreikusita zegoen eta beraz, klase kide guztioi bi testu irakurtzeko eskatu zигun talde eragileak, bata hauek aukeratutakoa eta bestea irakasleak proposatutakoa. Aisiaren inguruan jarduteak gizarte langintzaren tresna indartsutzat ikustea ahalbidetu digu eta Aranzazu Rodrigue-ek (2017) Corbeña-ren hitzak ekarriz aipatzen duen bezala aisiak efektu terapeutiko bat dakar behar bereziak dituzten pertsonen arlo sozialean, fisikoan, emozionalean eta kognitiboan, eta era berean, norbanakoa gizaki bezala eraikitzeke aukera ematen dio birgizarteratzea erraztuz.

Hori horrela izanik, tertulia gauzatzeko talde txikitik antolatu ginen, zortzi ikaskide inguru elkartuz talde eragileko kide batekin batera, dinamizatzaillearen papera hartzen zuena, hain zuzen ere. Lehenik eta behin, talde txikian bakoitzak testuetatik ateratako ideia nagusiak partekatu zituen eta horrek bideratu zигun hausnarketa orokor bat egitea. Gure kasuan taldeak ematen duen babesaren inguruan hitz egin genuen eta aisiak eskaintzen dituen onurak aipatu ziren. Hala ere, aisialdi mota ezberdinak zehaztu genituen batzuk kaltegarriak bihurtzen ari baitziren, hala nola, drogen kontsumora bideratutako aisia edota kirol-lehiaketa askok sortzen duten botere harremanak eta biolentziaren kasuak. Horretaz gain, haurren aisiaz jardun genuen, gurasoen nahietara egokitzen direla aipatuz eta genero errolak elikatuz.

Behin talde txikiak eztabaida bukatuta, dinamizatzailleek ateratako ideia nagusien zerrenda bat egin zuten, ondoren klase osoarekin partekatzeko. Dinamizatzaille bakoitzak bere taldeko gogoeta bota zuen, eta oro har, talde gehienek kapitalismoari kritika egin zioten, gurea barne. Izan ere, aisialdia kapitalismoaren mesedetan dagoen tresna indartsu bat lez identifikatu genuen, lan orduetatik at daukagun denbora betetzeko, baina era berean, lan erremuneratuarekin gertatzen den bezala, distraituta jarraitzeko tresna bat da, gaitasun kritikoa usteltzen duena eta axolagabekerian oinarrituta dagoena, hots, okupatuta gauden bitartean ezin dugu pentsatu.

Oro har, parte hartze aktiboa eman zela esango nuke eta klasean giro aproposa eratu genuela esatera ausartuko naiz. Baina, agian, parte hartze hori beharrezkotzat hartu genuen eta ez zen era boluntario batean gauzatu. Soziologoaren jardunbideetara bueltatuz, formakuntza jardueren baitan barnebildu dezakegu erronka hau, izan ere, ikastearekin batera kritikotasuna garatzeko aukera eman digu klasean sortutako debateak eta eztabaidak.

Hurrengo klase orduan egoera berdina gertatu zela hauteman nuen, izan ere, aisiaren gaiarekin jarraitzeko, irakasleak testu batzuk banatu zituen eta talde txikietan banatuta bakoitzaren ideia nagusiak atera behar ziren. Oraingo honetan, nire taldearen parte hartzea askoz urriagoa izan zen eta testuarekiko interes falta sumatu nuen. Hiru talde osatu genituen bakoitza testu ezberdin batekin eta behin testua laburtuta gainontzeko taldeekin partekatu genuen. Lehenengo testuaren arabera, aisialdiak lau funtzio nagusi zituen, pertsonala, soziala, berritzailea eta ekonomikoa, hain zuzen ere. Funtzio bakoitzaren berezitasunak azaldu zizkigun taldearen bozeramaileak eta beti funtzio nagusi bat egon behar dela esplikatu ziguten eta bakoitzak berea zehazteko gaitasuna izango du. Bigarrenik, gure taldean ateratako ideia nagusiak azaldu genituen, *Baliozko aisia* deritzon testutik, alegia. Bertan bi aisia mota definitzen direla azaldu genuen: batetik, aisialdi aktiboa azaldu genuen, zenak egiten dugunaren gaineko kontzientzia izatea dakar eta hausnarketarako tartea uzten duena, eta bestalde, pasiboa aurki dezakegu, denbora pasa soil bat lez erabiltzen duguna, nahigabekoa. Azkenik, *Aisia eta bizi kalitatea* izeneko testua azaldu ziguten, sormenezko aisialdiaren onurak aurkeztuz eta esku hartzeko teknika bezala proposatuz, heriotzaren aurrean esaterako.

Bizipoza hitzaldia

Erronka hau aurrera eramateko talde eragileak *Bizipoza* elkarteko kide bat ekarri zuen gurera hitzaldi bat emateko asmoz. Hitzaldia ASK-ko ekintza bat lez ulertu ahal den heinean, eskatzen duen parte hartzearen bidez ikaskideen gaikuntza eta protagonismoa bilatzen duelako, *Bizipoza* elkarteak berak burutzen dituen ekintza oro animazio soziokomunitarioaren berezitasunak betetzen dituztela ikusi genuen. Izan ere, elkarteko kideak azaldu zuen bezala, ASK-k eta boluntariotzak gizartearen garapena bilatzen dute eta boluntario horien bidez izaera bereziko gaiak lantzen dira, hala nola, minbizia. Horretaz gain, familien ongizatea bilatzen duten elkarten laguntza jasotzen dutela azaldu zigun.

Gradu honen lehenengo urtean gizarte langintzaren oinarriak eta metodologia ikasgaia landu genuenean boluntarioen inguruko teorizazioa jaso genuen eta irakaslearen aburuz "gizarte-langilea, ordea, profesionalizatuz joan da, eta, gaur egun, boluntario bezala ulertzen dugu, besteak beste, kobratu gabe, eta horretara inork behartu gabe, gizarte-arloko laguntza eskaintzen duena" (Zabalo, 2008). Horretaz gain, irakasleak boluntario eta gizarte langilearen arteko osagarritasuna proposatzen du, talkak edo konfrontazioak saihestuz eta elkarlana bultzatuz.

Hizlariak elkartearen nondik norakoak azaldu zizkigun eta boluntariora prozesuek atzean duten lan profesionalaren berri eskaini zigun. Gainera, helburu modura Euskal Herri osoan zehar euskarazko boluntariora sare bat sortzea aurkeztu zigun eta helburu horrek animazio soziokomunitariotik bideratutako proiektu bat eskatzen zuen. Izan ere, motibazioa oinarri duen sare bat sortzea bilatzen da, parte hartze aktiboa eskatzen duena eta balore konkretu batzuk izan beharko dituen. Sareak berezko nortasuna sortuko du, norbanakoari protagonismoa eskainiz eta sormenean oinarritutako adierazpenaren bidezko gaikuntza bat ekarriz.

Bukatzeko, elkarteak aurrera eramandako ekintzen adibideak partekatu zituen eta gogotsu jaso genuen, besteak beste, *Bizipozaren Jardunaldiaren* berri eman zigun eta *Irri Aldizkariaren* funtzionamendua azaldu zigun. Aipatzekoa da ekintza guztiak elkarlanaren bidezko komunitatearen garapenean oinarritzen direla, bai boluntarioek bai profesionalek gauzatutakoak. Ekintza hau hitzaldi bat den heinean, Ander-Egg-ek zehaztutako formakuntza jardueratzat hartuko dugu, ezagutza jasotzearekin batera arrazoimena erabili genuelako.

8. Ondorioak

Idazlan honetan zehar aipatutako informazioa aztertzearen ondorioz hainbat konklusio atera dira eta horren inguruan arituko gara lanaren azken atal honetan. Horretarako, Gomez-ek (2018) Xabier Úcar-en hitzak ekarriz aurkeztu duen sailkapena azalduko dugu hurrengo lerroetan, azken batean, egile honen emaitzekin bat gatoz eta elementu garrantzitsuei erreferentzia egiten diela esan dezakegu. Lehenik eta behin, ASK-ren bertako diskurtso konkretu baten gabezia nabarmentzen dela azaltzen du; ondoren, animazio soziokulturala oso gutxi garatu dela espainiar estatuan nabarmentzen du; hirugarrenik, azken urteetan ez direla berrikuntzarik eman ASK-ko diskurtsoetan defendatzen du; horretaz gain, gaur egun esku hartze sozialen metodologian animazio soziokultural terminoa ez dela gehiegi agertzen goraiatzen du; eta azkenik, ASK interbentzioaren eginkizun transbertzal bat lez planteatzen dela esaten du Úcar-ek.

Oro har, garrantzi eza nabarmen bat dagoela ondorioztatu dezakegu eta erraminta honen gainbehera areagotzen ari dela. Egoera hau ikasketetan islatzen da, izan ere, goi mailako zikloaz gain ez dago honen inguruko ikasketarik. Gure kasuan, gizarte langintzako azkenengo urtean ikasgai hau burutzen da soilik, aurretik gai honen inguruan ezer landu gabe. Halaber, aitortu behar dut ikasgaia honen lehenengo egunetan ikaskide gehienok ez genekiela ASK-ren definizio zehatz bat ematen. Hau horrela izanik, ezinezkoa da tresna honek eskaintzen duen onura guztiak autematea, eta hortaz, merezi duen garrantzia ematea. Arazo honen ondorioz, gizartean elementu hau zabaltzearen beharra ikusten dut, bai teorikoki zein emaitza praktikoa areagotuz eta ikusgai bihurtuz. Komunitatean bizi garen heinean,

ezinbestekoa iruditzen zait honen berri izatea, eta are gehiago gizarte langile lez komunitatearen baitan esku hartzen dugun bitartean. Hau da, jendartean jardungo duen edozein profesionalak tresna honen espezializazioa jasotzea beharrezkoa ikusten dut.

Úcar-en sailkapenaren bidez ikusi dugun moduan, ASK ez da egokitu gaur egungo errealitatera eta diskurtso zaharkituen inguruan mugitzen gara gai honen inguruan aztertzen dugunean. Bauman-en gizarte likidoari egingo diot erreferentzia oraingoan, izan ere, gizarte aldakor baten baitan bizi gara eta komunitate konkretuari egokitzen zaion esku hartzea burutu behar da. Globalizazioa, kapitalismoaren tresna lez, kontsumismoan eta teknologia berriaz baliatzen da, eta honek sortu du gaur egungo aisiaren eredua. Aisia aipatzearen beharra ikusten dut, izan ere, animazio soziokomunitarioko elementu gisa hartzen dugu eta gure saioetan protagonista nagusia izan da gai hura. Aisialdiak itxaropen faltsu bat eskaintzen digu, hots, lan orduetatik deskonektatzeko aisia dugula sinisten dugu eta aisialdi hori modu aske batean aukeratutakoa dela uste dugu, lanaren sistemaren menpe jarraitzen dugula ikusi gabe, eta zoritxarrez, ASK ekintza batzuk aisialdi mota honetara bideratuta daude.

Bukatzeko, interbentzio komunitarioko ekintzak burutzeko geroz eta gehiago zabaltzen ari den kontzeptu baten inguruan aritzea gustatuko litzaidake, parte hartze demokratikoa deritzon horren inguruan, hain zuzen ere. Argi dago parte hartzea ezinbestekoa dela animazio soziokulturaleko ekintza baten kide izateko eta partaidetza boluntarioa izateaz gain aktiboa izan behar dela. Beraz, nahiz eta profesional baten ezagutza behar-beharrezkoa izan eta helburu konkretu batzuk ezarri arren, ezinbestekoa da partaidea entzutea, euren nahiak eta beharrak identifikatzea eta hauen bidez esku-hartzea bideratzea erabakiak ezarri gabe, pertsona hauen duintasuna, errespetua eta autodeterminazioa zutabe sendoak bihurtuz.

Bibliografía

Aguirre, Diana (2018). *Experiencias de animación sociocultural y voluntariado impulsadas por el programa académico de gestión e la universidad de Piura-Perú*. Universidad de Piura-Perú.

Ander-Egg, Ezequiel (2000). Metodología y practica de la animación sociocultural. Ander-Egg, Ezequiel, Las actividades específicas a partir de las cuales se puede realizar la animación sociocultural (336.-388. or.). Madril: CCS.

Ander-Egg, Ezequiel (2000). ASK-rako jardunbideen katalogoa.

Cruz, Maria (2010). La animación sociocultural: orígenes, evolución y situación actual. *Innovación y experiencias educativas*, 29, 1.-12.

Escarbajal, Andrés (1992). *La animación sociocultural como instrumento para el desarrollo comunitario*. Murcia: Universidad de Murcia.

Froufe, Sindo eta Sanchez, Maria Angeles (1998). Animación Sociocultural. Nuevos enfoques. Froufe, Sindo eta Sanchez, Maria Angeles, Animación Sociocultural: Acercamiento conceptual (17.-50. or.). Salamanca: Amarú.

Gomez, Francisco Rafael (2018). *La animación sociocultural*. Manual Atalaya. Helbidea: <http://atalayagestioncultural.es/pdf/07.8.pdf>

Martinez, Laura (2015). “*ExpresArte*”, un proyecto de animación sociocultural basado en la experiencia musical. Universidad de Valladolid.

Montenegro, Estefanía *et al.* (2018). *Ámbitos y modalidades de la animación sociocultural*. Junta de Andalucía.

Rodriguez, Aranzazu (2017). *El ocio como herramienta del Trabajo Social*. TF Difusión.

Soler, Pere (2012). Concepto y sentido de la ASC. Soler, Pere, *La animación sociocultural*. Editorial UDC.

Ucar, Xavier (2018). *Dimensiones y valores de la animación sociocultural como acción o intervención socioeducativa*. Helbidea: <http://www.proceedings.scielo.br/pdf/cips/n4v2/43.pdf>

Zabalo, Julen (2008). *Gizarte Langintzarako Sarrera*. Euskal Herriko Unibertsitatea.